



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/02/12

Batzarretako Presidenteak osasun arloko nazinoarteko ordezkariak jaso ditu Gernikan

Osasunaren arloko Europako eta Amerika Erdialdeko hainbat ordezkari Gernikako Batzarretxera etorri dira gaur goizean, eta Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidenteak harrerea egin deutse. Bisitarien artean Eduardo Antonio Espinoza Fallos El Salvadorreko Osasun ministro-ordea, Lucrecia María Hernández Mack Guatemalako Osasun Ministro ohia, Itziar Irazabal Medicus Mundi Bizkaiko zuzendaria, Carlos Mediano Nazinoarteko Medicus Mundiko zuzendaria eta gainerako ordezkariak eta erakunde horrek Bizkaian dituan kideak, zuzendaritza taldekoak eta bulegoetakoak, etorri dira.

Medicus Mundi, osasuna eskubide unibersal moduan definidaduten daben eta pobrezia desagertuarazoteko behar egiten daben pertsonaz osatutako alkartea da, pertsona guztiek duintasunez bizitzeko eta osasunerako eskubideaz gozetako aukerea izan daien. Bizkaia Aretoa izango da gaur eta bihar, “Estadua Osasunaren bermatzaile: erronkak eta mehatxuak” Nazinoarteko Jardunaldiak jasoko dituan lekua. Bertan hartuko dabe parte gaur Gernikara etorri diran sektoreko espezialista guztiek.

Eguraldia txarra izan dan arren, Presidenteak guztiei eskini deutse harrerea, Alkate Soinua entzuten zan bitartean. Euriak ibilpidea zeozer aldatu dauan arren, bisitea Osokoen aretoan hasi eta Arbola Zaharrera, Beirategiaren Aretora, Liburutegira, eta bukatzeko Presidentearen bulegora heldu da. Bertan, konbidau guztiek, berba batzuk idatzi ahal izan ditue Ohorezko Liburuan, foru egoitzara egindako bisitaren oroigarri moduan.

Bere berbetan, El Salvadorreko Osasun ministro-ordeak onetsi dau “hunkituta eta txundiduta dagola euskal herriak bakearen, askatasunaren eta autodeterminazioaren aldeko burrukan daukan mendeetako tradizinoa ikusita”. El Salvadorreko ordezkariak bisitaren ostean autortu dauenez, baekian Gernikaren gaineko zeozer “ikasleen historiako liburuei esker”. Dana dala, gehitu dauenez, “bisita hau oso aberasgarria izan da, askatasunaren aldeko burrukak eta demokrazia lortzeko tradizinoak indar handia daukiela ikusi ahal izan dalako, eta hori pizgarria da guretzat”.

Guatemalako Osasun Ministro ohiari jagokonez, “bere errespetu eta miresmena erakutsi gura izan ditu euskal herriak dituan balioakaz eta demokraziagaz, erabagiak hartzeko orduan erakutsi dauen partaidetza komunitarioagaz, emakumeen beharraren aintzatespenagaz eta konpromisoagaz, eta herri honek dituan pertenenentzia sentimenduagaz eta nortasunagaz”.

Itziar Irazabal Medicus Mundi Bizkaiko zuzendariak, nazinoarteko ordezkariak “Euskal Herriarentzat erreferentea dan lekua” bisiteteagaitik erakutsi daben zirrarea azpimarratu dau. “Guretzat garrantzitsua zan lurraldean daukagun erakunde garrantzitsuenagaz emotea hasierea jardunaldiei, gu bisitetan datorren jendeak modu batean edo bestean gure gizartearen eta politikaren errealidadea ezagutzeko ahalegina egiten dogulako”.

NOTA DE PRENSA

12/02/18

La Presidenta de Juntas recibe a representantes internacionales del ámbito de la salud en Gernika

Varios representantes europeos y centroamericanos del ámbito de la salud han acudido esta mañana a la Casa de Juntas de Gernika donde han sido recibidos por la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui. Entre los visitantes se encontraban el viceministro de Salud de El Salvador, Eduardo Antonio Espinoza Fallos; la ex Ministra de Salud de Guatemala, Lucrecia María Hernández Mack, la directora de Medicus Mundi Bizkaia, Itziar Irazabal, el director de Medicus Mundi Internacional, Carlos Mediano, y el resto de representantes, y personal de la organización en Bizkaia tanto de junta directiva como de oficina.

Medicus Mundi se trata de una asociación de personas que define la salud como derecho universal, y que trabaja en la erradicación la pobreza de forma que cualquier persona pueda vivir dignamente y disfrutar del derecho a la salud. El Bizkaia Aretoa será el lugar que albergue hoy y mañana unas Jornadas Internacionales bajo el título “El Estado como Garante de Salud: retos y amenazas” donde participarán todos las personalidades especializadas en el sector que hoy han acudido a Gernika.

A pesar de las malas condiciones meteorológicas, todos los representantes han sido recibidos mientras se escuchaban los sonos del Alkate Soinua. El recorrido, a pesar de que se ha visto ligeramente alterado por la lluvia, ha ido desde la Sala de Plenos, el Árbol Viejo, pasando por el Árbol de Gernika, la Sala de la Vidriera, la Biblioteca, hasta finalmente recalar en el despacho de la Presidenta, donde todos los invitados han podido escribir unas palabras en el Libro de Honor en recuerdo de su visita a la dependencia foral.

En su dedicatoria, el Viceministro de El Salvador ha admitido sentirse “conmovido y estremecido ante la tradición secular y la lucha por la paz, libertad y autodeterminación del pueblo vasco”. El representante salvadoreño ha reconocido tras la visita tener alguna noción sobre Gernika “gracias a por libros de historia de los estudiantes”, no obstante ha añadido que “esta visita ha sido muy estimulante en sentido de tener unas tradiciones de de lucha y democracia por la libertad, y eso nos estimula”.

Por su parte, la ex Ministra de Salud de Guatemala, ha querido transmitir todo su “respeto y admiración a los valores y compromiso con la democracia, la participación comunitaria

en la toma de decisiones, el reconocimiento al trabajo de las mujeres y la maravilla pertenencia e identidad del pueblo vasco”.

La presidenta de Medicus Mundi en Bizkaia, Itziar Irazabal, ha destacado la emoción de los representantes internacionales por visitar “un referente para Euskal Herria”. “Nos parecía importante empezar las jornadas con la institución más importante que tenemos en el territorio porque de alguna manera siempre intentamos que la gente que nos viene a visitar conozca nuestra realidad social y política”, ha añadido.